



## ■ MUGIKORTASN ASTEA

### Bi ariketa berri, biharko Ginkanan

Koxka Elkartek, beste hainbat talderekin batera, ginkana ego-kitua antolatu du bihar.

Atsegindegin izango da, 17:00etan. Aurten gainera, bi ariketa berri izango dira; guztien helburua da partehartzaleak desgaitasuna duten pertsonen lekuan jartzea. ■

### Oinezkoentzako ibilbidea, etzi

Ariketa fisikoa bultzatze aldera, oinezkoentzako ibilbidea ere izango da larunbatean. Aisialdirako eta deskantsurako dauden gunek ezagutzeaz gain, ibilaldian zehar ezagutuko dituzte non jarri diren ariketa fisikoa egiteko makinak. Goiz Eguzkitik abiatuko dira, 10:00etan. ■

## ■ ORONA

### Hitzaldi irekia, bihar

Elhuyar Aholkularitzak hitzaldia antolatu du bihar Orona Fundazioan, Galarretan Orona IDEOk duen eraikinean. *Nola egin eta eragin berrikuntza soziala?* da saioaren izena, eta irekia da; 09:15etan. ■

## ■ GOBERNU BATZORDEA

### Igogailua Oronak egitea, aztergai

Oronak proposatu du Latsunbeberri auzoa eta Urbieta kalea elkartzeko igogailua debalde jarriko lukeela. Gobernu Batzordea bilduko da bihar, eta puntu hori eta beste bat aztertuko dituzte, 09:15etan. ■

## ■ UDALA

### Zinpeko epaimahaikide izan daitezkeen zerrenda, ikusgai

Zinpeko epaimahaikide edo *jurado popular* izan daitezkeen herritarren zerrenda ikusgai dago Udalean. Irailaren 25a arte egongo da, idazkaritzan, 09:00etatik 13:00etara. Zozketa hilabete bukaeran egingo dute, Donostian. ■

## ■ DONOSTIAKO ZINEMALDIA 62. EDIZIOA

# Euskal zinemaz betea dator Zinemaldia

Bihar hasiko da Donostiako Zinemaldia eta irailaren 27ra arte izango da zineaz gozatzeko aukera. Denzel Washington eta Benicio del Toro aktoreak jasoko dute Donostia Saria.



### AMAIA GARCIA

EUSKAL zinemak indarra hartu du Donostiako Zinemaldian. Zinemira sailaz gain, beste lau pelikula euskaldun egongo dira 62 edizio honetako sail ezberdinetan. Aipatzekoa da *Loreak* filma, zinemaldiaren historian Sail Ofizialean egon den bigarren euskarazko filma izango baita. 1990garren urtean egon zen aurrenekoa, Antxon Ezeizaren *Ke arteko egunak* filma. Euskal zinemaz gain, atzerritik ekarritako pelikula interesgarri asko izango da aurten. Denzel Washington eta Benicio del Toro aktoreak izango dira aurtengo protagonistak, Donostia Saria jasoko baitute.

### Loreak – Irailak 23, 24 25

Jon Garaño eta Jose Mari Goenagaren azken lana da. *80 egun* filmak atzerrian izandako arrakastaren ostean, istorio intimista batekin datoz Zinemaldira.

Hiru emakumeren istorioa kontatzen da; hiruren bizimoduak goitik behera aldatuko dira, lore-sorta xume bartzuen eraginez. Lore horiek ahaztutzat zituzten sentimenduak azaleratuko dituzte. Filmak Urrezko Maskorra irabazteko aukera asko ditu.

### Lasa eta Zabala – Irailak 25, 26, 27

Pablo Malo zuzendari donos-



Loreak ahaztuta zituzten sentimenduak azaleratuko dizkiete, filmeko protagonistei.

tiarrak Joxean Lasa eta Joxi Zabalarri gertatutakoa azaltzea du helburu *Lasa eta Zabala* pelikulan. Duela 30 urte, ETako bi kide hauek torturatuak, erailak eta kare bizian lurperatuak izan ziren. Epaiaketan oinarritu da zinegile donostiarrak, pelikula egiterakoan. Malok adierazi du ez duela onen eta txarren pelikula bat egin. Manikeismoetatik urrundu da, eta gertatutakoa azaldu du. Sail Ofizialean lehiaketatik kanpo egongo da filma.

### Une nouvelle amie – Irailak 20, 22

2012 urtean François Ozon zuzendari frantsesak Urrezko Maskorra irabazi zuen *Dans la maison* filmarekin. Aurten ere, maskorraren lehian egongo da film honekin. Egokitza-pen libre bat da, Ruth Rendell

idazlearen *The New Girlfriend* istorioarena. Laguna hil ostean, Claire depresio batean sartuko da. Lagunaren senarrarekin hitz egiten hasiko da. Eta handik aurrera, berezia izango da bien arteko harremana.

### Negociador – Irailak 22, 23, 24

Borja Cobeagaren azken filma Zabaltegi sailean egongo da ikusgai. Manu Arangurenego negoziazio lanak egingo ditu ETarekin, Espainiako Gobernuaren bozeramaile gisa aritzen den euskal politikaria da. Laster ikusiko da, ez dela ekintza serioa eta ondo pentsatua; alderantziz. Kasualitateek, akatsek edo gaizki-uler-tuek baldintzatuko dute bi aldeen arteko elkarriketa. Umorez betetako filma da, eta ETaren tabura gerturatzea

izango da zuzendari donostiarraren nahia.

### Mommy – Irailak 19, 20

25 urteko zuzendari gaztea da Xavier Dolan kanadiarra. 2009 urtean zuzendu zuen aurreneko filma, 19 urte zituela. Donostian, bere bosgarren pelikula ikusteko aukera izango da, aurreneko aldiz ingelesez egindakoa. Arazoak dituen 15 urteko seme batez arduratu behar du alargundu berri den amak. Arreta falta eta hiperaktibitate arazoak ditu gazteak. Ama-emeak saiatuko dira ondo konpontzen eta elkarbizitza ahalik eta ondoen eramaten. Kyla bizilagun berriaren etorrerak, eragina izango du bizitzan. Filmak Epaimahaiaren Sari Berezia lortu du Canneseko zinemajaldian; Donostian Perlak sailean egongo da ikusgai. ■

Mitxel Kirolak Pelotadenda  
IRAILAK 18, 19 ETA 20  
AZKEN EGUNAK  
**OUTLET LIKIDAZIOA**  
DENBORALDI BERRIA IKUSGAI  
ADIDAS, ASTORE, COLUMBIA, MIZUNO, CHAMPION, UNDER ARMOUR, BESTARD, HI-TEC  
[www.pelotadenda.com](http://www.pelotadenda.com) - [info@pelotadenda.com](mailto:info@pelotadenda.com)  
Kaleaketa: 1 (Astelekuak) plaza) 4871481 - Tf: 943 55 04 53 // 096 214 001  
Orduak: 09:30-12:30 / Arratsaldeak: 12:30-15:30

tripontzi taberna  
Saborra berria  
PINTXOKIN BIZIOZ ENTSEKIDUEK  
BOZTAN PLATER BORBINETOZ  
**ZATOZ**  
DASTATZEAK!  
Kardaberaz kalea, 11 • HERNANI  
943 555 724

**AKELENEA**  
Erretxegia - XIX Mendeko Sagardotegia  
Menua  
Foie Micuit  
Langostino entsalada  
Onddo eta ahate ojaldrea  
Legatza saltsan  
Entrekota  
Postrea, edaria, ogia, kafea  
Koldo eta Ana  
**25€** (BEZ barne)  
Oialume bidea 57 - 20115 Astigarraga - 943 333 333

☎ TELEFONOAK • TAXIAK: 943 550093 • UDALTZAINGOA: 092 • DYA: 943 464622  
 • AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037  
 • ANBULATORIOA: 943 006666 - 943 203020 • JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK: 943 331103  
 ☩ FARMAZIAK • Egunez: Castilla Urbieta 7 943 552941 • Gaez: Aizpuru Latsunbeberri 11 943 336077

**EGURALDIA**  
**GAUR** Ez da aldaketarik espero. Eguzkia eta lainoak tartekatuko dira, eta beroa izango da hizpide: Min.18° / Max.31°  
**BIHAR** Antzeko eguna izango da. Goizean eguzki eta arratsaldean lainoak ugartuko dira. Temperatura, antzeko: Min.18° / Max.31° (euskalmet)

## I GURE ESKU DAGO

# Festa eta brindisa, Eskoziako erreferenduma ospatzeko

Musika eta pintxo poteak izango dira, 19:00etatik 20:30ak bitartean. Hernaniko EH Bilduk bat egin eta herritarrak animatu ditu kalera ateratzera.

HERNANIKO Gure Esku Dagok erabakitze eskubidearen aldeko festa eta brindisa antolatu ditu gaur. Eskoziak independente izan edo ez erabakiko du gaur, eta ospatu egin nahi dute: «herritarron garaia da, Eskozian ateratzen den emaitza baietza edo ezetza izan, demokraziaren garaipena da, herritarron garaipena da».

Festa Kaxkoan izango da, 19:00etatik 20:30etara. Eskoziak, katalan eta euskal musikak alaituko ditu kaleak, eta tabernetan pintxo potea izango da. Antolatzaileek kamisetekin gerturatzeko deia egin dute: «Gure Esku Dago ekimeneko kamiseta; edo Eskoziak, Katalunia edo antzeko mezuren bat duen edozein».

**EH Bilduk bat egin du** Hernaniko EH Bilduk bat egin du ekimenarekin eta herritarrei deia egin die: «autodeterminazioa eta erabakitze eskubidea demokraziaren zutabe ezinbestekoa dira, eta zuen eskubideen alde ateratzeko deia egiten dizuegu. Eskoziarrak izango dira aurrenekoak, Katalanak ondoren, eta hurrengoak gu gara». ||

## I KALERATZEAK STOP

# Bilera irekiak ostegunero, egoitzan

Transpakarreko bulegoan egiten dituzte bilerak, 19:00etatik 21:00etara.

UDAKO atsedenaldiaren ostean, indarberrituta datoz Hernaniko Kaleratzeak Stop taldeko kideak. Jakinarazi dutenez, Transpakarren dute egoitza, eta bertara jo behar

du beharra duen edonork. Bilerak ostegunetan egingo dituzte, 19:00etatik 21:00etara, eta etxebizitzarekin arazoren bat duen edonork joan daiteke, irekiak baitira.

Bestalde, telefonoz edo emailez ere, jarri daitezke harremanetan. Telefonoz, 943 33 65 83ra deituta; eta emailez, [stopdesahucioshernani@nodo5.org](mailto:stopdesahucioshernani@nodo5.org) helbidera idatzita. ||

## I ESKU PELOTA

# Ojuel eta Gorrotxategirentzat txapela, Lezoko finalean

Josetxo Etxandi txapelketa irabazi zuten Urbieta II eta Telletxearen kontra. Lasa eta Garmendia azpitxapeldun izan ziren, Donostian.

BIKOTE sendoa osatzen dute Paul Ojuel eta Aitor Gorrotxategik, eta hala erakutsi zuten Lezon irabazitako finalean. Josetxo Etxandi txapelketa irabazi zuten nagusi, Urbieta II eta Telletxearen 22-18 irabazita. Euskal Federazioan, zirkuito formatuan jokatzeko da txapelketa, eta finalerdietatik hasi ziren pelotari hernaniarrak. Finala orekatua izan zen erdibidera arte. Gorrotxategik Telletxea baino seguruago jokatu zuen; Urbieta ordea, Ojuel baino gehiago ari zen asmatzen. Handik aurrera joko erritmoa bizitu zuen bikote hernaniarrak, eta 18-18 berdinduta egon baziren ere, txapelarekin itzuli ziren etxera.



Ez da elkarrekin irabazten duten azkeneko txapela izango!

Mikel Lasa eta Jagoba Garmendia hernaniarrak ere finala zuten asteburuan, Donostiako Euskal Jaien barruan. Alebin mailan aritu ziren eta finala Añorgako Albeniz eta Etxezarretaren kontra jokatu zuten. Aurkariak indartsuagoak ziren

fisikoki, eta nagusi izan ziren. **Bloga, martxan** Bestalde, Hernaniko Esku Pelota ataleko bloga berriz ere martxan dagoela jakinarazi dute: [hernanikoeskupilota.blogspot.com](http://hernanikoeskupilota.blogspot.com) da helbidea. ||

## I SASKIBALOA

### Saskibaloia eskolak, ostiralero

Hernaniko saskibaloia taldeak Saskibaloia Eskolak antolatu ditu ostiralero. 3 eta 6garren maila bitarteko neska-mutuei dago zuzendua eskola, eta parte hartu nahi duenak jarri duten hitzordura azaldu besterik ez du: ostiraletan, Kiroldegian, 17:00etatik 18:00etara. Informazio gehiagorako: 678 83 79 59. ||

## I TXANTXANGORRI

### Sagardo Lehiaketan, izen-ematea

Txantxangorri elkarteak Sagardo Lehiaketaren 31garren edizioa izango dute jokoan, bihar. Parte hartu nahi duten herritarrek, bazkide izan edo ez, izena eman behar dute elkartearen. ||

## I IGERIKETA

### Master taldea ateratzeko bilera, etzi

Igeriketa taldeak Master taldea ateratzeko asmoa du aurten. Honen berri emateko bilera antolatu dute larunbatean, 11:00etan, igeriketa taldeak duen lekuan (Kiroldegiko frontoiaren ondoan). Taldean parte hartu edo informazioa nahi duten guztiei egin diete deia. ||

## I KIXKAL TABERNA

### Garagardoarekin, mejilloiak opari

Molly Malone eguna ospatuko dute gaur Kixkal tabernan. Dublineko pertsonaia ezagun honen omenez, garagardoa eskatzen duten guztiek mejilloiak izango dituzte opari. ||

## IRAGARKI MERKEAK

**Klase partikularrik eskaintzen dituzte:** matematika, kimika, fisika eta biologia. Unibertsitateko ikaslea naiz. Batxilergoko 1 mailatik behera, edozein mailatan. Deitu: 650 308 928

**Emakumea prest helduak zaintzeko:** orduka, interna/externa moduan, gauetan... Esperientziaduna eta informeeekin. Deitu: 631 471 101 / 671 291 053

**Kamarera extra bat behar dugu** barran eta sukaldean esperientziaduna. Deitu: 669 160 727  
 95 m2-ko PISUA ERDIALDEAN SALGAI, dena kanpoaldera, amueblatua eta eguzkitsua. Deitu: 943 33 25 56

**ETXKO KONPONKETAK egiten dira;** iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, persianak... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

**Iñigo Royo Masajista.** Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta berbebrala, reflexologia, aurikuloterapia,... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

<p><b>WEB ORRIALDEAK SORTZEKO IKASTAROA</b> Langabetuentzat</p> <p><b>AZKEN PLAZAK</b></p> <p>ORKOLAGA 14 HERNANI 943 33 37 11</p> <p><a href="mailto:unmes@urolalde.net">unmes@urolalde.net</a> urolalde</p>	<p><b>IKASI ENPRESA BAT KUDEATZEN</b> Langabetuentzat</p> <p><b>AZKEN PLAZAK</b></p> <p>ORKOLAGA 14 HERNANI 943 33 37 11</p> <p><a href="mailto:unmes@urolalde.net">unmes@urolalde.net</a> urolalde</p>
---	---

**HERNANI HIZKUNTZAK ENGLISH**  
(GURE INGHELESETXEA)

**IRAKASLE NATIBOAK**

Zorionak! 2013-14ko azterketa publikoen emaitzengatik: C1 ("Advanced"), B2 ("First") eta B1 ("PET").

**2014-15eko ikastaroaren matrikula irekita**  
12.00 - 13.30 eta 18.30 - 20.00

[hernanihizkuntzak@gmail.com](mailto:hernanihizkuntzak@gmail.com)

Deitu Alan edo Joe **943 33 11 08** Kale Nagusia 41 - 1